



ORRI-MARKATZAILE SOLIDARIOAK

15. edizioa 2023

FITXA DIDAKTIKOA



Save the
Children



Izena

Biel

Adina

2 urte

Herrialdea

Hego Sudan

Ametsa

bere amak osasuntsu eta herrialde baketsu batean hazi dadin amesten du

EZAGUTU ZERTXOBAIT GEHIAGO BIELEN BIZITZA

Nola jasan ditzake Hego Sudaneko bi urteko haur batek bere herrialdetik milaka kilometrora dauden gerraren eraginak? Akerrek, Bielen amak, amets oso argi bat dauka: bere semea osasuntsu hazi, modu egokian garatu eta inolako gaixotasunek ondorio lazgarririk ez dezala izan.

Bielen historia, bere bizitza laburra izanagatik, **bere amaren borrokaz beteta dago osasuntsu hazteko**, alabaina, orain dela gutxi, ahalegin horiek alferrikakoak izateko zorian izan ziren. Biel ez zen inoiz gaixo egon, baina beherakoak eta sukarra hasi zitzaizkionean, zerbait ongi ez zegoela kontura zen eta ospitalera eraman zuen; ospitalean esan zioten desnutrizioa zuela eta *plumpy nut* zorroak eman zizkioten.

Biel eta beste neska-mutil batzuek egoera horretara eraman dituzte inguruko **gatazkek**, baina baita European eta Asian dauden gatazkek ere, eta atmosferako fenomenoak muturrekoago egiten dituen klima-aldaketak. Bielen aita eskualdean indarkeria zabaltzen duten miliziek erail zuten, **klima-aldaketak** eragindako uholde larriekin etxea galdu zuten, eta aldi berean, baita landatuta zituzten uztak ere. Horren guztiaren ondorioz, Akerrek senarra ez ezik, bere beste bi seme-alaba ere galdu zituen malnutrizioagatik. Bere ahaleginak Biel babestean eta salbatzean jarrita ditu orain.

Save the Children-ek eskudirua transferituz laguntzen dio Akerri. Diru horrekin Bielek behar dituen tratamenduak ordaindu, janaria erosi eta uholdeek suntsitutako etxea berreraiki dezake.

Akerren ametsa betetzear dago, Biel desnutriziotik errekuperatu da, baina laguntza jasotzen jarraitu beharko du, ikusi dugun moduan, munduko ezegonkortasunak sortutako gatazkek Biel eta bere ama bizi diren urruneko txokoetan ere eragina dutelako.

Afrikako herrialde askotako ezegonkortasun politikoaren eta ekonomikoaren ondorioz, garapena ez da behar lukeen bezain azkarra. Goseteek, klima-aldaketak edo gerrek hazkundera mantsotzen dute eta oso urruti dauden gertakariak ere eragina izaten amaitzen dute. Hego Sudanen da horren adibide garbi bat. Duela gutxi Sudanetik bereizi den herrialde bat da eta bertako biztanleek nutrizio-arazoak izaten jarraitzen dute, batez ere, neska-mutilek, kontrol zuzenik ez duten faktoreengatik.

Azken hilabeteetako uholde orokortuen ondorioz, komunitateen arteko gatazkarekin eta elikagaien prezioen gorakadarekin konbinatuta, Hego Sudan gose-krisi okerrena bizitzen ari da, 2011n independentzia lortu zuenetik, eta egunetik egunera handiagoa da desnutrizioa eta gaixotasunak izateko arriskua. Bost urtetik beherako 1,4 miloi haurrek desnutrizioa dutela kalkulatzen da.

Save the Children 2011z geroztik ari da Hego Sudanen lanean. 2022an, erakundeak 2,2 milioi laguni lagundu zien, eta horietatik 1,5 miloi haurrei, osasunarekin, nutrizioarekin, hezkuntzarekin, higienarekin eta haurrak babesteko herrialdean dituen hainbat programei bidez.

Proposatzen dizkizuegun **jarduera hauen bidez**, egun batetik bestera bitzta aldatu zaien eta berriz ere lehen bezain seguru noiz izango diren ez dakitela babesgabe dauden milaka neska-mutileen egoerari buruz sentsibilizatu nahi ditugu zuen ikasleak.

Jarduera horiek egin eta gero, gelan atera diren ideiekin eta ikasleek egindako hausnarketekin **apain ditzakezue orri-markatzaileak**. Orri-markatzaileak pertsonalizatzeko modua lagungarria izan daiteke orri-markatzaileetako protagonisten antzeko neska-mutilei buruz gelan ikusi dutena familiako kideei kontatzeko.



HELBURUAK

- Irakurmena sustatzea proposatutako bitzta-historien bidez
- Inguratzen dituzten ingurunea ezagutzea, beste ingurune batzuekin konparatuta.
- Ikerketa-tresnak sustatzea
- Irakurmena eta idazmena bultzatzea, proposamen didaktikoen bidez.
- Elkartasunaren balioa sustatu eta garatzea ezagutzaren bidez, eta praktikara eramatea eguneroko ekintzetan.

Proposamen hauek ikasleen ikasketa-mailaren arabera egiteko pentsatu dira, baina zuen taldera hoberen egokitzeko moduan molda ditzakezue.

HAUR-HEZKUNTZA

Zein da gure janari gogokoena? Zein elikagaiak ematen digu energia gehien eta zeinekin hazten gara osasuntsu? Bielen kasuan egoera zaildu egiten da ez dauzkalako eskura behar dituzten elikagaiak. Guztion artean energiaren piramide bat egingo dugu osasuntsu egoteko behar ditugun elikagaiekin (argazkiak erabil ditzakezue eta Hego Sudan eta gisako herrialdeetan elikaduraren oinarria osatzen duten elikagaiak adieraz ditzakete: zerealak, arrautzak, barazkiren bat edo beste, eta Bielen antzeko haurrek guk hemen jan dezakegun guztia jan dezaketen hausnar dezakete).

LEHEN HEZKUNTZA

Biel haur txikia da, baina hazten denean ere ezin izango du guk jan dezakegun guztia jan. Gure plater gogokoa nolakoa den eta zein osagai dituen azalduko dugu, eta ondoren, Bielen platerarekin konparatuko dugu, Hego Sudaneko haurrek nolako elikagaiak dituzten, zein osagai ezagutzen ez dituzten; haragi edo arraia ala zerealak zer jaten duten gehiago, zein da beren elikaduraren oinarria eta abar.

Nire plater gogokoa	Bere plater gogokoa

BIGARREN HEZKUNTZA

Herrialdeari buruzko informazio gehiago ikertzera gonbidatzen zaituztegu, duela oso urte gutxi eratu zen herrialdea da eta bertako biztanleen ia erdiak 15 urte baino gutxiago dituzte. Nola bereizi zen Sudan?, zein ondorio sozial eta ekonomiko izan ditu?, herrialdean izan al da barne-gatazkarik? Gainerako ikaskideekin parteka dezakezu herrialdeari buruz ikasitakoa.



ESAN BAI BAKEARI

Badakigu zein garrantzitsua den gatazkak modu baketsuan konpontzeko eta elkarrizketan eta enpatian oinarritutako kultura bat bultzatzeko heztea. Save the Children-en ekintzaren protagonista diren, mundua aldatzeko mobilizatzen diren eta elkartasunean, errespetuan eta bakearen kulturaren hezi diren ikasleengan sinesten du.

**Mobiliza zaituz ikasleekin
apuntatu zaren ekintzak eginez.
Ikastetxeen uholde bat behar dugu
BAKEARI BAI ozen oihukatzen.**



**MUGITZEN BAZARA,
MUNDUA ERE MUGITU EGITEN DA**



Save the Children